

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Gure gaiaren aukeraketa egiterakoan hasieratik eduki genuen argi gaur egungo arazo bati soluzio jartzen saiatuko ginela. Horregatik, hasiera batean gure inguruan ikusten genituen arazoak arakatzeko hasi ginen, eta zenbait proposamenen artean, birziklapen arazoa larri ikusi genuen, beraz gure proiektuak, planetaren egoera txarra erakustea, jendea kontzientziatzeko balioko du. Gainera, gure soluzio posible bat ere botako dugu.

Bestalde, gure proiektua zehaztuta, gure proiektuaren ekintza zein izan zitekeen pentsatzen hasi ginen eta ondorengo ondorioa iritsi ginen:

Zaborraren kutsadura murrizteko helburuarekin, birziklatzea bultzatzen duen adimen artifiziala duen zaborrontzia sortu. Botatako zakarra zakarrontziak berak birziklatzeko ahalmena izango du, zaborra botatzerakoan zer zabor mota den idatzi beharko du erabiltzaileak eta zakarrontziak edukiko duen pantailan aukeratu ondoren, erabiltzaileak zaborra dagokion ontzira bota beharko du.

Gure proiektuaren bereizgarri nagusietako bat gure aurretiko ikerketa sakona izan da. Izan ere, internet, hitzaldi eta elkarrizketa nahikoa izan ditugu zaborraren eta birziklapenaren munduan ongi sakontzeko. Gainera, gure helburu nagusia ez da diru sarrera handiak izatea, planetari laguntzea baizik.